

Telmo Munduate Goikoetxea

D maila • 1 saria



Telmo Munduate nauzue, San Benito ikastolan dabilen ikasle ataundarra. Musika dut gustuko, eta eguneroko zeharkako istorio arrotzak hitz, ipuin bilakatzea pasio.

Ipuin honen gaia aurrera eramateko inspirazio gutxi behar izan nuen, inguruan entzun ohi ditugun titular gaiztoak, jendearen isiluneetan entzundako berbak nituen aliatu.

Baina ipuin hau guretzat da. Hitz galdu hauek irakurtzen ditugun guztiontzat. Denok izan gara ero, denok burugabe.

IRAGANA ATZEAN, ETORKIZUNA HIRE PAUSOEN BAITAN

- Noizbait burugabe izan garen guztiontzat -

Kaosa

Sirenak. Burrumba hots hark estaltzen zuen gaueko biktimaren isiltasuna. Biktima hala bekatari? Ezkutuko festa hartan, tragoen zurrupadek mina eragin zuten erdi hildako begiak baina bere barne nortasuna inoiz baino biziago zuen mutiko harengan. Han metatzen zen basapiztien arnas soinua atmosferako "Despacito" baino ozenago entzuten zen. Mugikorren bozgorailuek ez zuten nahikoa indar lagun arteko histeria kolektibo eta isil hura gaingintzeko. Errudun sentitzearen aurrekari beharbada. Anbulantzia gerturatzen ari zen izaki "bizidunen" laguntza erreguen oihu artean. Lastima bere ezpain bustiak desioz elkaturik zeudela. Baina ezerk ez zuen atzera bueltarik. Arrosa koloreko pozoiak begi urdin haiek itsasoko ekaitzean murgildu zituen. Denbora gelditu zen.

Lau begi, bi pentsamendu. Gaueko dilema argitu nahi zuten pentsamenduak. Amorruez beteriko garuna. Tristuraz bustitako masailak. Bi pertsona. Bi lagun. Eta gauak iraitzi zuen piztia hantxe presente. Handik aurrera bakoitzak erabaki beharko zuen etsai haren itxura. Bi adar eta enbor bat. Pozoia.

Sorginak

Gau bikaina daukat (edo daukagu) atariko ateetan. Itzela aurreikusten dudana. Bagoaz gure traje dotoreenak jantzita "prestu-prestu" herrian barrena, modeloen antzera. Gaurkoan ere

etxekeekin nahiko komeria izan ditut. Denok dakigu amak nolakok diren. Nerea bezala, yogatik etorri berritan irribarre alaia eta arima lasaitua erakutsiz, eta aldiz, kalera ateratzeko baimena eskatzerakoan “chakra mistiko” guztiak uxatuta. Begirada zuzena eta bizkarra tente. Gero gurasoei kasu egin behar zaiela esaten dute. Ea beraiek gehiago “enroiatzen” diren eta gure nahiak ulertzen dituzten. Alferrik da.

Festa giroa, kalimotxo usaina eta gazteak: nahaste atsegina. Lagun guztiek edaten badute ni ere ez naiz gutxiago eta efektua lasaitasunaren pilula hartzea bezalakoa izanik, are eta erakargarriagoa. Nor zaren ahantzi eta lotxa guztiak alboratuta banoa aurrera. Biluzik geratu. Lastima gozamen honek denbora tarte labur, laburregi bat, irautea.

Gaurkoa ezberdina izan behar da: FESTA maiuskulaz. Herrikoen begietatik urruti dagoen lekura joan behar omen gara, sorginen antzera, “sasi guztin gañetik, laño guztin azpitik”. Ea oraingoan hankapeko larrek ez gaituzten gehiago gogaitzen. Barnean dudak egonezinaren islada plana kontatzen jarraitu beharrean nago. Beheko “Eroskin” gure aliatuak nahikoa litro erosi eta poligono atzeko belardira. Gaur gaueko edanaren plazerak gehiago iraungo digulakoan egonezina da nagusi nigan. Guran. Zein edabe gozoa eta magikoa. Aitonak, afal ondoko tintitirriñaren laguntzaz esan ohi zuen moduan “sorginak ez dituk inongo gaitzen beldur”. Gu gaueko sorginak gara.

Zuhaitzek ez dute ilargia ezkututzen. Gaueko begia da. Gure testigu. Eta aldamenean dudana ere nahikoa testigu da. Berak ez omen du gorputza usteltzen. “Bla-bla-bla”. Hau handitan sasimediku edo sasiletratu. Auskalo. Baina lastimaz, honelako momentuetan eta perfekzioaren nahian, ezer gutxi. Kakati eta beldurti bat.

Jada tartetxo bat daramagu goian. Lekuko “amandrea” lokartzen ari dela dirudi laino potolo eta ilunen atzean, baina gure euforia inoiz baino distiragarriago dago.

Nahasteak. Nahaste handiagoa. Giro nahasia. Itzela.

Ni? Nor? Bai, ez. Zer? Ez, ez, ez. Ja.... Hi, ba bai. Nahastea, nahasmena. Gu. Mendia. Sorginak. Ilargia. Hil argia. Argia... Ja-ja-ja. Ixo-ixo. MAGIA.

Itsasoan

Beste gau batez hemen gaituk eta ilun ikusten diat guztia. Itzal batek hire alde beltza ikusi nahiko balu bezala. Nire haizea izango duk itsasoko ekaitzean lagun bakarra. Badakik. Nire ufadak indar gabeak direla esaten baduk ere, hire aingurak urruti dik itsaspeko harkaitza. Oso urrun hire paradisuko irla. Zuen ohiko festa bat egin behar duzuela jabetu naizenean nire txalupa etxeko kaian lotuta uzteko irrika piztu zaidak. Ondo dakik ni ez naizela zuen pirata-barkuko marinela. Baina zer erremedio? Zuek barkuko timoiaren jabe. Zuek kapitain. Eta ni ekaitzaren testigu bakar eta isila.

Gaueko hamabiak jo berriak diren honetan, arima moduan etorri duk zuen hornitzailea, laster joango garen itsaso ezkutuko marrazo bizarduna bailitzan. Aho-ireki aldiko kiratsa zabalduz eta gu guztion asteko txanponak xahutuz.

Barre gurutzatuak dituk nagusi. Hireak eta zuenak nahastuta. Giro hau ez diat batere atsegin, baina portuan ez nian beste itsasontzi bat hartzeko aukerarik. Hau ala hau.

Eta ilargia gugandik agurtzearekin batera zerbait arraroa sumatu diat. Hiri so egin eta larruazala bezain kolore zuriko begiek begirada galdua irudikatu ditek. Ikarazko begirada. Beldurtua. Ezjakinari beldurra adierazten dioten begirada.

Beltza

Beltza? Bai, beltz ikusten dut. Iragana inoiz baino argiago izan duenaren efektua izango da. Prospektua aurrez irakurri banu... Ez du axola! Hasperen egin, eta nire lainora itzuliko naiz. Ezpain erreak antzematen ditut. Zapore paregabeko ezpainak. Arantzaz betetako arrosa bat bailitzan ahoan. Arroso ederrenekoa. Edabe magikoa.

Nire begietan entzuten dut musikaren burrunba eta belarrietan ikusten argien distira. Mendiaren bakardadea gogoratzen dut eta bertan etzan gareneko belarraren ukimena sentitu. Ederra mementoa. Denok gure akelarreko korroan. Eskolan sei urteko "ume mokoan" gisan, baina helburu ezberdin batekin: gure ipuin partikularren bila.

Ez dakit orain non nagoen, ohean beharbada edo agian nire mendiko txokoren batean. Baina non egon nintzen badakit. Arro sentitzen naiz. "Mundiala natxok". Eta aitortzen dut, hasierako jolas soila inoiz baino gehiago luzatu bada ere, are eta gozoagoa izan dela.

Errukia

Mundua burujabe burugabeen esku dagoela zihoen amonak. Egia ote? Burugabe- burutsu askok noraezean alferrikako estropadak egiteko kemena ez zekiat nondik ateratzen duzuen. Zuen sena ustekabeko biktima konkretu batean ezarriz. Baita hik ere.

Hire eskuak gogor heltzen dizkiat, hiltorian balego bezala eta hire begiak begiratzean atzoko distira bera ikusi nahiko nitek. Eta ez. Ez diat lortzen. Etorkizunaren aurka erronkarik irabazi ezin dugula pentsatzen baduk ere, ez duk horrela.

Gaur gauak oker zer egin duen galdetzen zioat nire buruari. Erantzunik ez, baina bai erakutsi asko. Gure bizitzaren zati bat islatuko al dik momentu honek? Lastimaz esango diat, hire barruko gaizkileak hegoak moztu dizkik eta orain ez haiz inorena. Hire bihotz lokartuarena soilik. Hire pentsamenduak irakurtzeko grina sortu zaidak oraintxe. Ea hire egoeraren jabe haizen. Damu haizen.

Halere orain bost axola. Inoren barkamenak ez hau bueltan ekarriko. Ezta nire errukiak. Pozoiak ekarri hau hona. POZOIAK berak.